



Epaiaik eta epaitegiak

Auzitegi Gorenaren erabakia epaile-ordezkoen hizkuntz eskakizunaren gainean

Bizkaiko Abokatuen Bazkunak errekurtsioa jarri zuen, Aginte Judizialaren Kontseilu orokorraren akordio baten auraka; 1995eko otsailaren 22ko akordio hartan, 1995/1996rako epaile ordezkoak hautatzeko oposaketa-deialdi baten 7. oinarriaren aurka (oinarriak dio: "Tendrán preferencia para ser nombrados los concursantes que hubieren desempeñado funciones judiciales o de secretarios Judiciales o de sustitución en la Carrera Fiscal, con aptitud demostrada o ejercido profesiones jurídicas o docentes en estas materias, siempre que estas circunstancias no resulten desvirtuadas por otras que comporten su falta de idoneidad")

Errekurtsioaren muina Estatutuaren 35.1 artikuluan zetzan, xedapen horren arabera, epaileen izendapenean euskara ezagutzen duten hautagaiei lehentasuna eman beharko baitzaie; Botere Judizialaren Kontseilu Orokorren deialdiak ordea, ez zuen euskararen aipamenik egiten. Autonomia Estatutuak jakina denez, bloke konstituziogilearen osagai direnez zurruntasun berezia dute eta ezin dituzte ondoren datozen lege organikoek besterik gabe deseman.

Bestalde, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra eraentzen duen Legearen garapenerako Erregelamenduak euskararen balorazioa aipatu, aipatzen zuen, baina, "Asociación Profesional de la Magistratura"ko errekurtsio baten ondorioz etorri zen Epaitegi Gorenaren ebazpen batek indarrrik gabe utzi zuen araua zati horretan. Epaitegi Gorenaren arabera (1997ko ekainaren 24ko ebazpena), auzi horretan, Estatutuaren eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren arteko gataska ematen da.

Epaitegi Gorenak berriki emandako ebazpenean errekurtsioa ezezten du. Hartarako ematen diren arrazoiak dira, batetik, Estatutuak eta Botere Judizialaren Lege Organikoak lerrun bera dutela (organikoak direla biak, alegia), eta, berak ezin duela bata nahiz bestea efekturik gabe utzi; bestetik, aurkatutako oinarriak ez duela ordenamendua urratzen Botere Judizialaren Legeari dagokionean bederen, oinarri hark legearen 212. artikulua hitzez hitz jasotzen baitzuen, nahiz eta Estatutuaren agindua ez bete.

Botere Judizialaren Legeak 431.2. f) artikuluan aipatzen du euskara, aldi baterako magistratu eta epaile plazen probisioan meritu gisa hartu behar dela aginduz. Epaitegi Gorenak dio, bere egitekoa, kasu honetan, aurkatutako akordioaren oinarria baliozko ote den erabakitzea dela, eta ez arau baten interpretazio analogikoan noraino iritsi behar den esatea.

Babes errekurtsioa itzulpen sistema dela eta

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak bere gain hartu du Elkargo bertako hiru kidek Donostiako Entzutegiaren ebazpen baten aurka ezarritako babes helegitea. Babes horren funtsa da Euskal Erkidego Autonomoko epaitegietan erabiltzen den itzulpen sistemak Konstituzioan jasotako oinarriko eskubideen urrapena dakarrela. Helegitea aurkeztu dutenen ustetan itzulpenak Konstituzioaren 24.1 eta 2 artikuluan jasotako bermeen hurrapena dakar eta alderdien arteko berdintasuna bortxatzen du, epaileak, alderdi bat zuzenean ulertzen duen bitartean beste alderdiak esandakoa ez omen duelako ulertzen.

(Iturria: Gipuzkoako Abokatu Elkargoa)



Bizkaiko Probintzi Auzitegiaren sententzia judizioetako hizkuntz interpretazioaren gainean

Sententziaren objektua intsumisio kasu bat bada ere, lehen hiru arrazoibideetan beste auzi bat ebazten da, interpretazioaren balioarena hain zuzen ere. Sententzia euskaraz eta gazteleraz emana denez, arrazoi bi eta garrantzitsuak gainera izan ditugu aipatu epaia jasotzeko:

TRANITAZIO PENALEKO BULEGO KOMUNA

Bizkaiko Probintzi Auzitegia.1.Sekzioa
Buenos Aires, 6 Tfnoa: 94-4237250-4241676

166/96-1 zk.ko Erroilu Laburtua
228/93 zk.ko Prozedura
Penal Arloko 6.Epaitegia (Bilbo)

428/96 ZK-KO SENTENTZIA

PRESIDENTEA: JOAQUIN GIMENEZ GARCIA Ja.
MAGISTRATUA: ANA ISABEL RODRIGO LANDAZABAL Aa.
MAGISTRATUA: JESUS MIGUEL ESCANILLA PALLAS Ja.

BILBON, 1996ko abenduaren Zan.

Bigarren instantzian IKUSITA, Bilboko Probintzi Auzitegiko 1.Sekzioak, Prozedura Laburtuko auto hauek, 228/93 zenbakidunak, Penal Arloko 6. Epaitegian, soldadutzari uko egiteagatik ustezko delituagatik.

AITOR ASTIGARRAGA AGUIRREren aurka, 30.634.099 zk.ko E.N.A. duena, Durangon (Bizkaia) jaloa, 1969ko abuztuaren 11n, Paulen semea, Durangon (Bizkaia), Mugarra Auzunea Kaleko 4.zenbakian bizi dena, Cristina Gómez Martín Prokuradore A.ak ordezkaturia eta Inigo Santxo Letratu J.ak defendaturia, Ministerio Fiskala alderdi akusatzailea delarik.

JOAQUIN GIMENEZ GARCIA Jaunak, Magistratu Txostengile gisa, Salaren iritzia adierazten du.

EGITATEAK

LEHENENGOA.- Penal Arloko 6.Epaitegiak (Bilbo) 1995eko ekainaren 29an sententzia eman zuen. Sententzia horretan, esanbidez, frogatutzat jotzen dira honako egitate hauek: FROGATUTAKO EGITATEAK: Aitor Astigarraga Agirrek, adinez nagusia, aurrekin penalik gabe, soldadutza egiteko

izan zuen 1990eko azaroaren 25ean, Marqués de la Constancia CIR delakoan, Plasenciako Virgen del Puerto kaleko 1. zenbakian (Cáceres) horretarako, baina bidali zien agintari militarrei, Durangoko bere bizilekutik, urte eta hilabete bereko 19. idazkia soldadutza egiteko ezetz zehatza adieraziz eta bere agerpenerako bidalitako dokumentazio guztia iztulliz. Aipatutako sententziaren xedapenezko zatiak edo Epaia hitzez hitz honako hau dio: EPAITZA: A.A.A. kondenatu behar dut eta hala egiten dut, soldadutzari uko egiteagatik delituaren egile gisa, PRESOALDI TXIKIKO URTEBETEKO zigorra ezarriz, honako legezko akzesorioekin: kargu publiko guztirako eta sufragio aktibo eta pasiboaren eskubidea gabetzea kondenaren epe osorako, eta prozesuaren auzi sariak ordaintzea zigorra bete ondoren, kondenatuak ez du izango soldadutzara joan beharrik, mobilizatorako kasuan izan ezik.

Bigarrena.- Aipaturiko ebazpenaren aurka, A.A.A.ren ordezkariak apelazio errekurtsua tartekatu zuen dagokion idazkian adierazten diren arrazoiaren oinarriturik eta arrazoi hauek errekurtsoren mamiaren xede izango dira.

Hirugarrena.- Probintzi auzitegi honetara aurkezturik, auto hauek igorri zitzaizkion Magistratu Txostengileari ahozko epaialdiaren egiteaz erabakitzeke eta, kasu horretan, proposatutako frogaren onarpenaz ere bai.

Laugarrena.- ahozko epaiketaldiaren egitea beharrezkotzat jotzen zelarik, 1996ko irailaren 20ko data seinalatuz en horretarako. Egun horretan, epaiketaldian helegitearen letratu agertu zen, helegilea eta Ministerio Fiskala ere bai. Hauek auzitegiko Idazkariaren fedepean egindako akta eginbidean laburki jasota eratu ziren adierazpenak egin zituzten.

Apelaturako sententziaren Aurrekinak errepikatutzat ematen dira.

Frogatutako egitateak

Helegindako sententziarenak onartzen dira

Zuzenbidezko arrazoibideak

Lehenengoa.- Helegite honek badu berezitasuna, hau da instantzian emandako sententziaren aurkako desadostasun osoa Penal Arloko epaitegian ahozko epaiketaldian erabilitako hizkuntzari buruzko alegazioetan datza. Erabili zen hizkuntza gaztelera izan zen eta, orduan zen auzipetuak eta bere Letratuak euskaraz adierazteko eskubidea egikaritzean, sistema judizialak duen Zerbitzu Ofizialeko itzultzaile batez baliatu zen.

Helegitearen idazkiaren osoak neurri hau zalantzan jartzeko helburua dauka, defentsarik gabedia eragiten diola uste duelako, euskaraz erabilitako adierapenak ez baitziren jaso aktan, interpretariak gaztelerara egindako itzulpenaren baizik. Bidezkotzat jo zuen araudia aipaturik, alderdi helegailearen Letratuak bukatu zuen errekurtsua formalizatzeko idazkian, sententzia ezeztatzeko eta bere defendaturia

«Egitateak

Lehenengoa.- Penal Arloko 6. Epaitegiak (Bilbo) 1995eko ekainaren 29an sententzia eman zuen. Sententzia horretan, esanbidez, frogatutzat jotzen dira honako egitate hauek: FROGATUTAKO EGITATEAK: A.A.A.k, adinez nagusia, aurrekin penalik gabe, soldadutza egiteko gaitzat hartuta eta zeini kontzientzia eragozlearen izaera uko egin baitzioten, aurkeztu behar

absolbitzeko eskatuz edo, subsidiarioki, itzultzaileaz baliatu ziren iharduketa guztien balioabetasuna.

Helegitearen ahozko epaiketaduan, Letratu helegileak, formalizazio idazkiaren arrazoibideak errepikatu zituen eta azpimarratu zuen interpretaria erabiltzeagatik eragiten zaien defentsa gabezia. Aipatu behar da helegitearen bistan euskara erabili zela gaztelerara itzuli gabe, bai Letratu helegilearen txostenean bai helegilearen beraren honako adierazpen honetan: ea kondenatzeko erabili zuten Kode Penal baina lehenagoko legeria aplikatzea nahi zuen ala indarrean dagoen Kode Penal. Ministerio Fiskalak gazteleraz egin zuen bere txostena baina esan zuen, helegilearen txostena euskaraz egingo zela jakitean, gertakari honek ez ziola defentsarik gabezia eragingo eta horren ondorioz ez zuela eskatuko itzultzaileare agerpena.

Beraz, bi gaiari buruz erabaki behar du Salak:

a) Lehenengoa hizkuntz izaera duena, euskararen erabilera eta bere itzulpenari buruzkoa, Legeak aurrikusten dituen kasuetan, eta beroni lotuta, helegileak alegatutako defentsarik gabezia dagoen ala ez, b) bigarrena, oso garrantzitsua den gai bati buruzkoa da, hau da, soldadutzari uko egiteagatik delitua osatzen duten elementuak ematen diren ala ez; azken honetaz ez zuen berariazko hausnarketa egin ez errekursoaren idazki egituratzailean ezta helegilearen ahozko txostenean ere. Helegiteak ezeztatze eta bere defendatuaren absolbitzeko soilik eskatu zuen - 224. orrialdean eta hurrengoetan eta 236. Eta hurrengoetan-.

Salak bi arazo hauek aipatuko ditu, begi bistan dagoenez lotuta daudenak, ideiak, kontzeptuak, edo baloreak transmititzen dituen komunikazio orok erarik ohikoenean, hizkuntza bidez, egiten dituelako, eta beraz, hizkuntza batez baliatuz.

Bigarrena. - Helegileak zalantzan jartzen du interpretariaren agerpena, itzultzaileak, helegilearen hitzak gaztelerara itzultzean, defentsarik gabezia eragiten zion neurrian.

Hizkuntza arloari dagokionez, arazo hau aztertzeko, ezinbesteko araudia osatzen du, lehenik eta behin, eta beste era batean ezin denez, legezkotasun blokeak: Konstituzioak eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuak osaturik. Helegileak aipatu zuen baina uzte batekin, nahi gabe seguru asko, baina edonola aipagarria.

Konstituzioak, bere 3. artikuluan, lehenengo atalean bi adierazpen oso garrantzitsuak direnak dauzka: a) gaztelera estatuko hizkuntza espainiar ofiziala eta b) orok ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dute. Aipaturiko artikulua bigarren atalean, beste hizkuntzak ofizialtzat hartzen dira, eta dagokien Autonomi Estatutuei beren arautzea eskuordetzen zaie.

Bestetik, Autonomi Estatutuko 6. artikuluan errepikatu eta adierazten da, gaztelerarekin batera, euskararen koofizialtasuna eta gainera esaten du: "bere hiritar guztiek bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dute".

Aipatutako bi testuen exegesi laburrak, eta testu hauek gure ordenamendu juridikoaren gakoa osatzen dute, Euskal Herriko ikuspuntutik, hurrengo zalantzarik gabeko ondorioa darama:

a) Bi hizkuntzak, gaztelerak eta euskarak aitorpen eta babes legala dutela.

b) Euskal Herriko hiritarrentzat bi hizkuntzak koofizialak direla eta beraz, erbateko berdintasunez biztanle guztiek bi hizkuntzak erabiltzeko eskubidea daukatela, bereizketarik egin gabe.

c) Gaztelerari soilik babes-plusa ematen zaiola, esanbidez, gaztelera jakitea denentzako betebeharra dela esaten den neurrian. Ez dago hori bezalako agiririk euskararako eta Estatutua, kasu honetan oso garbia agertzen da. Horrelako planteamendua harremanetan jarri behar da gaztelera Estatu Osoko guztien hizkuntza den aitorpenarekin. Eta behar bada, honi buruz, euskarak Euskal Herrian daukan hedapen sozialari lotuta dauden beste hasunarketa batzuk gehi daitezke, eta era berean, bere derrigorrezko ezarpenak sor ditzakeen arazoei lotuta daudenak.

Botere Judizialaren Lege Organikoak xedatzen duen arautzak osatzen du araudi-hausnarketari buruzko bigarren puntua. Lege honek Estatuko hirugarren Boterearen iharduketa arautzen du. Gaia 229. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da, aipatutako III. Liburuko III. Tituluko I. Atala osatzen duelarik. Espinian hizkuntza ofizialen tratamenduz azaroaren 8ko 16/94 Lege Organikoaren 231. Artikuluan hitz egiten da, hain zuzen ere. Araudi honen arabera, lehen adierazitako legezkotasun bloke konstituzionalarekin guztiz koherentea, laburbilduz, honako hau esan daiteke:

a) Eskuarki eta aginduzko hitzetan "erabiliko dute" -gaztelera auzitegiko ohiko hizkuntza izango dela.

b) Hautzako hitzetan - "erabili ahal izango dute"- betegarriztat jotzen dela gaztelera ez den Elkarteko hizkuntza ofizialaren erabilera, inolako murrizketarik gabe eta itzulpen beharrik gabe. Eta bi salbuespen soilik aurrikusten dira non itzulpena edo interpretariaren agerpena beharrezkoa baita. Lehenengoa, prozesuaren alderdi batek kontrako alderdiak erabiltzen duen hizkuntza ezagutzen ez duenean, eta bigarren kasua, auzia dagokion Autonomi Elkartetik kanpo dauden auzitegiek ikusi behar dutenean.

Beraz, baieztatu daiteke nahi duen edozein alderdi prozesalek, lekukok edo adituk erabil dezakeela, murrizketarik gabe, Autonomi Elkartean batean berezkoa den hizkuntza. Legeak interpretariaren agerpena agintzen du konponbide gisa defentsa-gabezia sor liezaiokeen ez-ezagutzea alegatzen duen kontrako alderdiarentzat. Honen ondorioz ezin da bihurtatu argudio hori kontrako alegazioa egiteko esanez interpretariaren agerpenak defentsa gabezia eragiten diola berezko hizkuntza erabiltzen duenari, defentsa-gabezia, kontrako alderdiak alegatutako ez-ezagutzearekin soilik lotu daitekeelako eta horrelako defentsa-gabeziaren legitimitatea honako honetan oinarritzen da: aipaturiko berezko hizkuntzak eskubide egikarigarriaren estatusa dauka eta ez betebeharrak ezargarriaren estatusa. Gaztelerak soilik dauka azken

estatusa eta bere ezaguera eta erabilera eskubide-betebehar gisara antolatzen da.

Zalantzarik gabe, benetako elebitasunak, aberaste pertsonala eta soziala izateaz gain, arazoak eta gatazka sahiestuko litzuzke, eta halaber aitortu behar da interpretariaren bidezko deklarazioak, xehetasunak galarazten dituela, baina azpimarratzen da egun dagoen konponbide bakarra dela bai hemen bai mugaz beste aldean, hizkuntza ez ezagutzearen aurrean, eta batez ere, Botere Judizialaren Lege Organikoak aurrikusitako legezko konponbide bakarra, justizi arloan, presezki Ministeri Fiskalak -autoetako kasuan helegilearekin batera alderdi bakarrak- ez baitzuen alegatu inolako defentsa-gabezirik, pasa den irailaren 20an izandako helegitearen epaiketaldian, helegileak euskaraz hitz egiteko eskubidea egikaritu zuenean. Eta bista ospatu zen normaltasun osoz euskaraz, interpretaririk gabe, eta gazteleraz.

Hirugarrena.- Konklusio modura, esan daiteke interpretariaren erabilerak, iharduketa judizialean, alderdietako batek Autonomi Elkarteko hizkuntza koofiziala erabiltzeko eskubidea egikaritzen duenean, eta kontrako alderdiak hizkuntza hori ez ezagutzea alegatzen duenean, ezin diola defentsa gabezirik eragin horrelako eskubidea egikaritzenduen alderdiari. Benetako defentsa-gabezia kontrako alderdiarentzat legoke, Autonomi Elkarteko hizkuntza koofiziala ez ezagutzean, ezin izango baitituzke ezagutu beste alderdien argudioak, interpretaria ez egoteagatik. Interpretariaren agerpena ez dagokio hurrentasun judizialeko betebeharrari, kontradikzio eta berdintasun printzipioari baizik, printzipio honen titularra alderdi prozesala delarik, interpretaririk gabe, beste alderdiak kontrakoaren argudio guztiak ez litzuzkeelako ezugutuko, eta horrelako egoeran, ez legoke prozesurik, kontradikzio eta berdintasun faltagatik.

Honi lotuta, adierazgarria da azpimarratzea Botere Judizialeko Lege Organikoaren 231. artikulua, 5. atalean, jatorrizko idazkeran, Epailak aginduta edo defentsa gabezia alegatzen zuen alderdiak eskaturik, aurrikusten zuela interpretariaren agerpena. Egun, azaroaren 8ko 16/94 Lege Organikoak emandako paragrafo horren idazkeran, hurrengo garrantzi handiko aldaketa gertatu da: organo judizialari buruzko aipamena desagertarazi egin da, interpretariaren agerpena eskatzeko legitimatu gisa -bere ordezkari agertzen da: "Legeek horrela xedatzen dutenean"- alderdiaren eskaerari eutsiz. Azken honetan oinarritzen da alderdien arteko kontradikzio eta berdintasun printzipioaren eta interpretariaren arteko lotura.

Beraz, ez da bidezkoa alderdi helegileak egindako defentsa-gabeziaren alegazioa onartzea. Alegazioa gertatu zen alderdi helegilearen adierazpenak interpretariak itzuli baitzituen».